

KATAKRAK

Eraldaketaren epizentro bihurtu den liburu denda, kantina eta aretoa

Guztiak du zergati bat Katakarak liburu dendan. Hausnarketa eta eztabaida motibo da dena, eta

soilik hala izatea erabaki delako aurkituko dugu guztia dagoen moduan. Horixe da Iruñeko Alde Zaharreko Kale Nagusiko 54. zenbakiko liburu dendan sartu eta begi kolpe bat eman orduko burura datorkigun ideia. Hala dela aitortu digute, gainera, Nerea Fillatek eta Hedoi Etxartek, Katakra-
kraken barrunbetara bisita gidatua egin digutenak.

Kafearen usain gozoak harripatu eta bizkotxo ederretara egin digu ihes begiradak. Atsedeen hartzen edo lagunekin gozatzen ari diren pertsonak dau-
de mahaitxoetan barreiatuta, hamaika kolore eta zapore dituzten infusioen bueltan, lasai, patxadaz. Kantina zeharkatuta Katakra-
keko bihotzera iristen gara: liburu dendara. Liburuak, bi pisutan barrena, apaletan txukun-txukun daude pilatuta. Jatorrizko hizkuntzaren arabera sailkatuta daude eta guztiek du-
te zerbait eskaintzeko. Hala ohartarazi digu Etxartek liburu dendan sartu eta berehala: «Li-
buru berriak badaude, noski. Baina ez daude hemen berriak direlako, guk hautatu ditugula-
ko baizik». Azalera handiko liburu dendetan ez bezala, saia-
kerak dira nagusi Katakra-
ken. Liburuaren artean, pelikula ere ageri dira berriki zabaltzen duten Potemkin filmoteka zabalean.

Eskailerak igo eta goiko solairuarekin egin dugu topo, azken hilabeteotan Iruñeko gaurkotasunaren agertoki bihurtu den aretoarekin, hain zuzen ere. Aretoak jada zenbatezinak diren agerraldi, asanblada, jardunaldi edota poesia errezitaldiak hartu ditu. Gainezka egon da askotan, Katakra-
ken sorreratik gogoan izan duten hipotesia baieztatuz: «Iruñeak halako azpiegitura baten beharra zuen».

Iazko urtearen akaberan ireki zituen ateak Katakra-
kek, baina La Hormiga Atómica liburu dendan du hazia. 2007ko aben-
dutik 2013ko abendura arteko

 **KULTURA** / oihana.llorente@gaur8.info

Iruñeko erdigunean «Hau guztia aldatu nahiko genuke» leloak ematen digu ongietorria. Katakarak liburu dendaren parean gaude. Haustura iradokitzen du izenak; eraikuntza eta eraldaketa proposatzen ditu, baina. Liburuak saltzeko gunea izatetik harago, eraldaketarako kantina eta azpiegitura ere baita Katakarak.



bidea egin zuen Uria kaleko li-
buru dendak, eta alokairu kon-
tratuaren amaierara iristen ari
zirela jabetuta hasi ziren Kata-
krak izango zenarekin amesten.
Bisita gidatua amaitu orduko,
proiektu eta erronka berriak
patxadaz azaldu dizkigute pare-
tari ostu dioten terrazari begira
dituzte besaulkietan. «Iruñean
eragin gehiago izan nahi ge-
nuen, Hormigaren hankak
mantendu bai, baina gauza
gehiago, handiagoak eta iraun-
korragoak egin nahi genituen»,
hasi da azaltzen Fillat. Iazko
ikasturte osoa proiektua haril-
katzen igaro zuten. Paperean
ondo josita zutenean, praktika-
ra egin zuten salto eta ametsa
egikaritutako zuen dirua biltzen
hasi ziren.

Dirua askatasuna eman edo
lepotik tira egiten duen lokarri
bihur daiteke. Bigarren aukera
hori errealitate bihur ez zedin
eta erabaki guztietan erabateko
autonomia izatea lehenetsiz,
ekonomikoki autonomo bilaka-
tu dute Katakarak. Hala azaldu
digu Fillatek berak, harrotasu-
nez azaldu gainera: «Gure au-
rrekontuaren erdia baino
gehiago mailegu militante, do-
haintza edo *crowdfunding* bi-
dez lortutakoa da. Bestea, Ban-
ku Etikoarekin hitzartutako
mailegua da. Izugarri kostatu
zaigu aurrekontua ixtea, baina
proiektua ekonomikoki auto-
nomoa izatea funtsezko oina-
rria zen».

Auzolanak ere paper oso ga-
rrantzitsua du Katakra-
ken historia laburrean, 300 lagun bai-
no gehiago aritu baitziren
iazko udazkenean erauste eta
eraikuntza lanetan, baita oste-
an guztia atontzen eta margo-
tzen ere. «Izugarria izan zen
jendearen erantzuna. Batzue-
tan guk eskatuta bertaratu zi-
ren, baina besteetan euren ka-
sa agertzen ziren, batzuk
Nafarroa kanpotik ere», ekarri
du gogora Etxartek hunkituta.
Egun ere auzolanak presentzia
handia du Katakra-
ken.

“Hau dena aldatu nahi genu-
ke”. Aipu horrekin egingo du
topo Iruñeko Kale Nagusiko
ibiltariak. Esaldi horrek ondo
jasotzen du Katakra-
ken filoso-

fia, eta, Fillaten begietara, «normaltzat jotzen diren gauzei buelta asko ematea» da euren sekretua.

Adibide argia ipini digu, gainera. Kapitalismoaren ikono argienetakoa den Coca Colak ez du kantinan lekurik. Haren orde, EH Kola edo bestelako kola freskagarri ekologikoak dituzte. Fillaten aburuz, elikadura «aukera politiko sendoa» da, eta, hortaz, elikadura burujabearen alde egin duten horiei bidea erraztu eta goxatu nahi die Katakrakek. Gertukoak eta ekologikoak diren lehengaiak erabiltzen dituzte Iruñeko bihotzean dagoen kantinan, bai eta bidezko merkataritzak eskaintak ere. «Elikaduraren multinazionalak indar handia dute, eta, beraz, gauza gehienak birpentsatzen ditugu –dio Fillatek–. Azukrea eta kafea bidezko merkataritzaren bidez eskuratzen ditugu; esnea, aldiz, ekologikoa eta baztandarra da. Opiak hementxe bertan eginak edo Lakabeko okindegikoak dira... Eguneko menua, noski, ditugun lehengaien arabera erabakitzen dugu».

DEMOKRATIZAZIO ARIKETA

Irisgarritasuna ere bada liburu denda honen marka. Ezgaitasunen bat dutenak arazorik gabe sar daitezke dendan eta Katakraken zerbitzu guztiak erabil ditzakete, hiru solairuak batzen dituen igogailua martxan dago eta hasieratik. Bestetik, langabeek zein soldata miserableak dituztenek bertan bazkaltzeko eskubidea dute, izan ere, hilean 1.000 euro baino gutxiago irabazten dutenek 8 euroko prezioan jan dezakete kantinan. «Erabateko demokratizazio ariketa burutu nahi genuen», dio Etxartek.

Urte osoan zehar mediterranean ukitua duen menua eskaini arren, azken asteotan hondartzako txiringitoen parekoa bihurtu da Katakrakek. Goizetan gosaltzeko eta edozein ordutan mokadua jateko aukera eskaintzen du kantinak. Astelehene-tan salbu, egunero dago bertan bazkaltzeko parada. Eta ostegun, ostiral eta larunbatetan



Ezkerrean, Katakra aurrera eramaten duen lantaldea. Lerro hauen gainean, liburu dendaren irudia. Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

afariak ere ematen dituzte. Pozarren daude kantinak duen harrerarekin, eta «soziologia oso anitzeko bezeroak» dituztela nabarmendu dute.

Jendetsuak izan dira ere Katakrakek antolatutako ekitaldietako asko. Atzera begira jarrita, memoria demokratikoaren inguruko zortzi jardunaldietan bildutako ia mila lagunak ekarri dituzte gogora. Salhaketa elkar-tearekin elkarlanean antolatutako “Zigorra eta kartzela” goiburudun hitzaldiak, Silvia Federici idazle feministaren solasaldia edota LOMCE legearen aurkako asanbladak ere ez dituzte ahortzi nahi. Izan ere,

guztietan leporaino bete zuten Katakra.

Hilabete gutxiko ibilbidean hamaika izan dira euren kasa ala elkarlanean antolatutako ekintzak, eta ehunka Katakra-bera bertarutako lagunak. Askorentzat da Katakra erreferentzia gune. Hala zen La Hormiga Atómica ere, baina, zalantzarik gabe, Katakra eraldaketa sare zabalago baten epizentro bilakatu da. Hedatze horren gaineko hausnarketa jarri du mahai gainean Etxartek: «Ekologiaren edo feminismoaren gaineko kezka bagenuen lehen ere, orain, baina, sektore asko umezurtz zeudela ikusi dugu. Musi-

ka klasikoarekin edo hezkuntzarekin interesatuta dauden herritarrak ere Katakra begira daude orain; euren beharrak ere asetzen ditugula dirudi».

Irakurketa ibilaldiak eta irakurle taldeak ere antolatzen dituzte. Gaiak elkargune hartuta generoen mugak gainditu nahi dituzte The balde aldizkarirekin batera antolatzen dituzten ibilbideekin. Sei hilero lau ibilbide desberdinen eskaintzea dute erronka.

Lantalde sendoa dago Katakra-ken atzean. Goranzko joera duen lantaldea da, gainera. «La Hormiga Atómican bi lagun hasi eta sei izaten bukatu genuen. Egun hamaika langile gaude Katakra-ken, eta hamasei kide gara asanbladan», nabarmendu du Fillatek.

Katrakaken hanka eta besoak martxan zirela iritsi ziren San Fermin jaietara. Hori zuten asmoa, eta helburuak beteta hartu zituzten uztailean aski merezitako oporrak. Merezitako atsedenaldiaren ostean, hurrengo ikasturtean Katakra-ken zerbitzu guztiak eraginkortzen eta hobetzen jarriko du lantalde osoak arreta.

Dirua askatasuna eman edo lepotik tira egiten duen lokarri bihur daiteke. Bigarren aukera hori errealitate bihur ez zedin, ekonomikoki erabat autonomo bilakatu dute Katakra

Gaurkotasunaren agertoki bihurtu da Katakra dendako aretoa, sorreratik gogoan izan duten hipotesia baieztatuz: «Iruñeak halako azpiegitura baten beharra zuen»